

JARRAIBIDE

## Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak

Euskadiko GGKEen  
Koordinakundea

1998ko maiatzako Ohiko  
Asanbladan onartuta eta  
2007ko ekainako Ohiko  
Asanbladan aldatua



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>LEHEN ATALA: JARRAIBIDEAREN EDUKIA</b>	<b>4</b>
<u>1.- GGKEen identitatea</u>	4
1.1.- GGKEen kontzeptua eta ezaugarriak	
1.2.- Oinarrizko adostasuna zenbait kontzeptutan	6
<u>2.- GGKEen lan arloan</u>	8
2.1.- Garapen proiektuak	8
2.2.- Gizaldeko eta larrialdiko laguntza	9
2.3.- Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza	9
2.4.- Ikerkuntza eta gogoeta	10
2.5.- Eragin politikoa	10
2.6.- Bidezko merkataritza	10
<u>3.- GGKEen arteko harreman irizpide orokorrak</u>	11
3.1.- Hegoaldeko erakunde eta taldeekiko harremanak	11
3.2.- GGKEen arteko harremanak	12
3.3.- Iparraldeko gizarte eta agenteekiko harremanak	13
3.4.- Dohaintza-emaile pribatuekiko harremanak	13
3.5.- Harremanak enpresekin	14
3.6.- Harremanak hornitzaileekin	14
<u>4.- GGKEen antolakuntza irizpide orokorrak</u>	15
4.1.- Gardentasuna eta kudeaketa	15
4.2.- Ekonomi baliabideak	15
4.3.- Giza baliabideak	16
<u>5.- Komunikazio arauak, publizitate eta irudien erabilpena</u>	17
<b>BIGARREN ATALA: EZARPENA, ZABALKUNTZA ETA JARRAIBIDEAREN BETETZEA</b>	<b>19</b>
<u>1.- Jarraibidearen ezarpen</u>	19
<u>2.- Jarraibidearen zabalkuntza</u>	19
<u>3.- Jarraibidearen betetzea</u>	20

## SARRERA

Azken urteotan aldaketa handiak gertatu izan dira garapen-lankidetzaren alorrean. Gizarteak elkartasunaren esparruan jarri du bere ardua. Alor honetan murgildurik diharduten talde ezberdinek gizartean duten eragina eta presentzia gero eta handiagoa dela ikusi ahal izan dute.

GGKEok, gizartean dagoen aipatutako elkartasun grinaren islada garen einean, nazioarteko lankidetzaren esparruan zeresan handia dugu, hain zuzen ere, gizartea bera delako zeregin hori agintzen diguna. Zeregin hau gure gain hartzen dugulako zenbait kontzeptu zehaztu eta beste zenbait printzipio adostu beharrean gaude bizi garen gizarte anitzaren islada garen einean, non mugitzen garen eta zeinen osagai garen. Eta honek guztiak, eta gure lana gero eta konplexuagoa delako, aipatu eginkizuna ikuspuntu ezberdinetatik lantzeko bidea irekitzen digu.

Jarraibidea zati bitan banatzen da. Lehenak, bost ataletan sailkatuta, edukinaz dihardu: GGKEen izana, lan esparruak, ekinbide eta barne antolamendu irizpide orokorrez, eta publizitatea, komunikazioa eta irudien erabilpenerako araez. Bigarren atala ezarpenari, zabalkuntzari eta jarraibidearen betetzeari dagokie.

Azkenik, espero dugu tresna honek honako helburu hauetarako balio izatea:

- GGKEen eguneroko kudeaketan Jokabideen Kodea zenbateraino aplikatzen den hausnartzea.
- GGKEen funtzionamendua hobetzea, Jokabideen Kodean bildutako printzipioei jarraikiz.
- Erakunde osoan zabaltzea Jokabideen Kodearen ezagutza, eta hausnarketa sustatzea.
- Jokabideen Kodea hedatzea erakundeek kanpoko eragileekin dituzten harremanen bitartez.

## LEHEN ATALA: JARRAIBIDEAREN EDUKIA

### **1.- GGKEen identitatea**

GGKEen mundua pluraltasunak eta dibertsitateak bereizten dute, elkartearen oinarritzko indarrak osatuz. Haren ondorio ezaugarri hauek ditugularik:

- Gizartea gizarte gisa aberasten dute, sektore askok nazioarteko elkartasunarekiko duen arduraren islada direlako.
- Ikusmolde, egikera eta praktika berriak ekartzen dituzte eta, sarritan, elkarren artean osagarri direnak.
- Gizarte talde eta kolektibo ezberdinei zuzentzen zaie, txirotutako herrialdeei buruzko egoeraren berri emanez, informatu eta sensibilizatzeko, eta, balizko aterabideak plazaratzeko ere bai. Honela, pertsona guztiei bere ardurei erantzungo dien erreferentzia hurbiltzea nahi da.
- Elkartasunaren aldeko eginahal isolatuen batura dira.

Aniztasun honek ez du eragozten, berezitasunak berezitasun, edozein GGKEri amankomun zaion zenbait berezko ezaugarri edo bereizgarri identifikatzea. Hauek dira, beraz, GGKEak lankidetzan ari diren beste partaideekiko bereizgarri egiten dituztenak.

### **1.1.- GGKEen kontzeptua eta ezaugarriak**

GGKEek hirugarren sektorea edo irabazi-asmorik gabekoa deritzonaren parte osatzen dute; zehazkiago, gizarte zibilaren bolondres-elkarteen mugimenduan parte hartzen dute, berau osotasunean estali barik. GGKEaren oinarritzko ezaugarriak hauek dira:

- Gutxieneko maila batean egitura batez antolatutako erakunde egonkor bat izatea. Ez da soilik kanpainetan edo norbere kasako ekintzetan oinarritzen. Indarrean dagoen araudiaren araberrako izaera juridikoa eta gaitasun legala izan behar du.

- Irabazi-asmorik gabekoa izatea. Lortutako diru-sarrera guztiak lankidetzan egitasmoak hartzaile duen herria izan behar du onuradun hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenetan erabiliz, gainontzekoa erakunde beraren funtzionamenduan erabiliko delarik.
- Lankidetzan eta nazioarteko elkartasunaren alorrean aktiboki aritzea. Bai garapenaren esparruan, bai larrialdi egoeretan, bai eta garapenerako hezkuntzan ere.
- Gizarte aldakuntza edo transformaziorako nahia izatea. Gizartearen hobekuntzan aktiboki arituz, Iparralde-Hegoaldearen arteko harreman bidezko eta zuzenagorako egitasmoak bultzatuz, eta garapenaren oinarritzko eta ezinbesteko osagaiak diren gizona eta emakumearen arteko berdintasuna bultzatuz.
- Gizartean eragin eta haren babesa lortu. GGKEak gizartearen babesa duela erakutsi behar du, eta bere barnean eragin aktiboa duela ere bai. Gizarte babespen hau era ezberdinez zertzen da: dohaintza edo kuoten bitartezko diru-laguntzaz, bolondres-lana mobilizatzeko gaitasunaz, gizartean indarra duten sareetan partehartzailatza zuzena izanez, inguruko beste erakundeekin dagokeen harremanez, e.a.
- Menpekotasunik ez izatea. GGKEak burujabe izan behar dira edozelako beste erakunderekiko, bai gobernukoa, bai gobernuartekoa, bai bestelakoa bada ere. Honek esan nahi du erakundeok bestelako edozein erakunde publiko edo empresa talderen kontrolpe edo menpekotasun organiko edo antolakuntzazkotik aske egon behar dutela; bere helburuak, estrategiak, kontraparteen aukeraketa e.a. askatasun osoz finkatzeko gaitasuna izan behar dute.

Beste erakunde batek sortuak izan badira legez bereiztuta egon behar dira, eta bitartekaririk gabeko erabakiak hartzeko gaitasuna izan behar dute. Bestelako erakunderekin (hala nola alderdi politikoekin, erakunde erlijiosoekin, sindikatoekin, enpresek...) inolako erlaziorik duen erakundeak erlazio horren berri eman beharko du.

Nazioarteko erakunderen baten azpisail bat badira gutxieneko burujabetasun bat ziurtatu beharko dute erabakiak hartzerakoan jatorrizko bulego zentralarekiko.

- Baliabide nahikoak edukitzea, bai giza eta bai diru baliabideak ere, elkartasunetik, dohaintza pribatuetatik, bolondres-lanatik edo antzekoetatik etorriko direnak.
- Karguak hautatzeko edo izendatzekoan era garden eta partehartzaile batez egingo da, gizon eta emakumeren arteko aukera berdintasunari bidea emanaz. Hain zuzen ere, patzuegoaren (fundazioetan) edo zuzendaritza-batzorde edo horren baliokederen baten partaideak bolondresak izango dira, baina, karguak sorrarazitako gastuei dagozkien diru-ordainei utzi gabe.
- Beren politikan, ekintzetan eta diru-aurrekontuetan gardentasuna erakustea. Honek dokumentazio kualitatibo eta kuantitatiboaren berri ematea suposatzen du, bai eta bere ekintzen eta baliabideen kanpo-kontrola erraztea ere.
- Nazioarteko elkartasuna eta lankidetzan oinarrituta egon beharko dira. Honek suposatzen du Iparraldeko GGKEen oinarrizko xedeen artean garapenerako lankidetzaren eta desberdintasunen, pobreziaren eta berau eragiten duten zergatien aurkako borroka agertzea. Horrez gainera, bere ekimenak helburu honekin ados egotea eta bat etortzea eskatzen du.

## **1.2.- Oinarrizko adostasuna zenbait kontzeptutan**

GGKEek bere lan esparrua osatu eta bere ekintzen printzipioak norabidetzen dituzten zenbait oinarrizko kontzepturi buruzko ikusmolde amankomuna dute, hori guztia arlo zabal baten barruan, hala nola: sustatzen duten garapen mota; borrokatzen duten pobrezia eta Hegoaldeko herrialdeetan garatzen duten lankidetzaren.

GGKEek garapena sustatzen dute, berau aldaketa sozial, ekonomiko, politiko, kultural, teknologiko eta abar... gisa ulertuz. Garapen hau nahikunde kolektibotik sortua izanik, partaidetzazko antolakuntzatik eta komunitateko partaideen botere erabilpen demokratikotik dator. Garapenak, horrela ulerturik, berdintasun baldintzak sortzen ditu, gizakiaren bizitzari aukera berri eta zabalagoak irekitzen dizkiolarik bere gaitasun guztiak erabili ditzan, eta gorde egiten du, etorkizuneko belaunaldientzako, baliabideen, ingurugiroaren eta kultur ondarearen erabilgarritasun egokia.

GGKEek pobrezia erazteko dute helburu, pobrezia hau gizakiak, bizirik irauteko, eta fisikoki, mentalki eta espiritualki duintasunez garatzeko oinarrizko dituen baldintzen pribazioa dugu, beronek genero, gaitasun, kultur balore, adin eta



talde etnikoarekiko duen beharrak aintzat hartuz. Pobrezia, oinarrian, herrialdeen eta izadiaren esplotakuntzatik datorrela uste dute. Eta gizarte desberdintasunen zergatia baliabideen banaketa desberdinean datzala, eta herrialdeak beraiei eragiten dien erabakietatik baztertuak izatean.

GGKEek lankidetzari ekin diote hegoaldeko herrialdeetan, lankidetzari hau berdinen arteko hartu-emana dela ulertuz, denontzako lagungarri eta aberasgarri, asmozat garapena bultzatzea duena, pobrezia eraziz (bi hauek arestian definituak izan diren zentzuan). Lankidetzari nazioarteko harremanen testuinguruan kokatu behar den iharduera da eta, horrexegatik, gainontzeko Iparralde-Hegoalde politikekin harreman estua du hauek eragin nahian baina diru-laguntza soiletara mugatu gabe. Lankidetzak koherentzia orokorra eskatzen du: luzera begira plazaratutako xedearen (arestian adierazitakoak) eta gauzatutako ekintza eta ekimenen artean; eta bilatutako emaitzeen eta erabilitako bitartekoen artean.

GGKEek bere pentsamendua eta bere ekintza erabakiorki osatzen duten beste hiru alderdiei ere garrantzi handia ematen diote: genero berdintasuna, ingurugiroarekiko begirunea eta giza eskubideen sustapena.

Genero kontzeptuaz sexu bakoitzari gizarteak ematen dion zerizana adierazten da, hau da, gizona edo emakumea izateari gizarteak ematen dion zentzua, elkarren arteko harremana, eta harreman honetan gertatzen diren botere/menperakuntza erlazio ezberdinak. Generoko sistema eta harremanak gizarte harreman guztietan daude, rol, jarrera, joera eta balore ezberdinak definituz. Eta gizon/emakume guztiek barneratuak dira gizartegintza prozesuetan. Gaur egungo genero sistemak azpian kokatu eta menpeko egiten du emakumea, generoko erlazioa, beraz, gizarte desberdintasunen artean adibide bihurtuz.

Honegatik, GGKEek, beste batzuren artean, emakumeek, komunitatearen parte diren elean, erabakietan parte har ditzaten baldintzak sustatzea xede izan behar dute. Bai eta garapenerako eta gizaldekoko laguntza egitasmo guztietan haien parte-hartze aktiboa sustatzea ere, hauen baliabide eta onuren eskuraketa eta kontrol zuzena bermatzeko.

GGKEek ingurugiroarekiko begirunea izango duen garapena bultzatuko dute. Bere ekintzek ez dute ondorio kaltegarriak izan behar ingurugiroan, haren kontserbazioa eta baliabideen erabilpen sostenigarria bultzatuz.

Bere ekintzen bidez GGKEek giza eskubideekiko errespetua indartzen dute, hala nola eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ere. Garapenerako eskubidea haien barne dagoelarik.

## 2.- GGKEen lan arloak

GGKEek berezitasunak berezitasun, eta egikera eta ikusmolde ezaugarri amankomunak amankomun, arlo ezberdinetan dihardute:

### 2.1.- Garapen proiektuak

GGKEek Hegoaldean egiten duten lanak pobrezia-erazteko zergati estrukturalen aurka egitea du helburu eta laguntzaren onuradun diren herrien garapen soziala bultzatu.

Horregatik beharrezkoa da haien beharrezko zergatiak aztertzea, elkarrizketa erraztea eta atsedetik gabeko lanari ekitea Hegoaldeko erakundeekin. Kontutan izanik, beti ere, onuradunen lehentasun eta nabarmentasuna, eta desberdintasunek gehien eragindako taldeak (genero, etnia, e.a. eta berauen kolektibo antolatutako) aurretik jarritz, berauen egoera sozial, ekonomiko eta kulturalaren arabera.

Hegoaldeko kontraparteekin antolatutako lankidetzak elkarrekotasunean eta helburu amankomunei ekiteko lankidetasunean oinarrituta egon behar da. Lankidetzak hau era ezberdinetakoa izan daiteke:

- Laguntza eta aholkularitza tekniko eta antolakuntzako, egitasmoetan parte hartzen duten langile taldeen gaitasun tekniko hobetuko duena.
- Herri-ekimenentzako diru-laguntza.
- Hegoaldean-Hegoaldeko lankidetasunaren sustapena, antzerako bizipenen berri emateko eta emaitzak hobetzeko.
- Ekimenen jarraipena eta azterketa, herrialdean duen benetazko eragina ezagutzeko eta lankidetzaren kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko.



## 2.2.- Gizaldeko eta larrialdiko laguntza

Esparru honetan lanean ari diren GGKEek laguntza eskatzeko adinako kalteak, galera ekonomikoak, hildakoak eta kalteak osasunean eta oinarrizko herri zerbitzuetan eragiten dituzten hondamendiek eragindako herrialdeei luzatzen die beren laguntza. GGKEak halako egoeren prebentzio lanetan ere ari dira.

Gizaldeko laguntzak garapena izan behar du beti helburu, herrian herriko baliabideen erabilpena indartuz, eta kaltetutako biztanlegoari lehentasuna emanez eta hauen partehartzailatza aktiboa behin eta berriro sustatuz. Horrez gainera, edonolako gobernu edo enpresa-talderen eraginetik aske egon beharko du.

Larrialditako ekintzak hondamendien aurrean identifikazio lana, zaintze lana eta erreakzio lana dira. Erreakzioa eta erantzuna salaketa eta presio politikoko ekimenekin batera eman beharko dira.

## 2.3.- Garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza

Iharduera honekin gizartean jarrera eta jokaera aldaketa eragiten duen prozesu aktibo eta sortzailea ulertzen dugu, zuzentasuna eta elkartasunaren baloreak sustatzen dituena.

GGKEek zera lortzea nahi dute sentsibilizazioarekin eta garapenerako hezkuntzarekin:

- Iritzi publikoari munduko pobreziaren eta hura iraunarazten duten zergatien eta botere egituren berri ematea; herrialdeen arteko elkarmenpekotasunaren, desberdintasunen zergatien eta berauentzako balizko aterabideen ulerkuntza erraztea.
- Iritzi publikoan beste kulturen ohitura eta bizimoduekiko ulerkuntza eta begirunea sustatzea.
- Zuzentasuna, bakea, ekitatea, eskubideen berdintasuna, gizona eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, demokrazia, partehartzailatza, elkartasuna eta ingurugiroarekiko begirunearen irizpideak oinarritzat izango dituen gizarte aldaketa piztuko duten baloreak eta jarrerak sustatzea.

- Pobretutako herrialdeekiko konpromezu zehatza bultzatzea.

## 2.4.- Ikerkuntza eta gogoeta

GGKEek, Hegoaldeko bere kontraparteekin batera, errealitatearen azterketaren sakonketatik, beraren ikerketa zientifikotik eta beraien bizipenen azterketatik abiatuz, elkartasuneko pentsamoldearen sorpena bilatu behar dute.

Eginbehar hauek ikerketa proiektuetan, argitalpenetan, ikastaroetan, mintegietan eta tailerretan, eztabaida foroetan eta nazioarteko jardunaldietan parte hartuz zertuko dira.

## 2.5.- Eragin politikoa

Eragin politikoz informazio, elkarrizketa, presioa edota salaketa neurrien (gizarte mobilizapena, errepresentazio organotan parte hartuz e.a.) multzoari deritzogu. Neurri multzo hau GGKEek bultzatu behar dute eta bai pertsona bai erakunde publikoei, bai eta Hegoaldeko herrialdeei eragiten dien guztian zeresanik duten elkarte eta erakunde pribatuei ere zuzenduak behar dute izan. Azken helburua, herrialdeen arteko harremanetan positiboki eragitearena da, bai eta mundu osoko gizatalderik behartsuenen alde egitearena ere.

## 2.6.- Bidezko merkataritza

Bidezko merkataritzaz Hegoaldeko langileentzako lan baldintza egokiak bilatuko dituen nazioarteko merkatal harreman bidezkoak eta beredintasunezkoak ezartzea nahi duen nazioarteko mugimendua ezagutzen dugu. Merkataritza erlazio hauek honako printzipiook errespetatu beharko dituzte:

- Beharrezkoak ez diren bitartekarien ezabaketa, Hegoaldeko ekoizleei zuzenean erositik.
- Salneurriak ekoizlearekin adosturik finkatu.
- Ingurugiroarekiko, gutxiengoekiko eta biztanlego indigenarekiko begirunea.



- Talde ahulენტzako laguntza ematea eta merkatal harreman egonkorrei eustea.
- Nazioarteko merkataritzaren egitura eta funtzionamendu ez-bidezkoa zalantzan jartzea.

### **3.- GGKEen arteko harreman irizpide orokorrak**

#### **3.1.- Hegoaldeko erakunde eta taldeekiko harremanak**

GGKEek Hegoaldean dituzten kontraparteekin harreman estuan egin behar dute lan: herri erakundeak, GKEak, herri mugimenduak eta laguntza hartuko duten biztanlego talde antolatua. Berauekin bat egiten dute helburu amankomunetan eta lankidetzan ulertzeko moduan. Hori dela eta, paternalismoa edo Iparraldetik agindutako irizpideen inposaketa alde batera uzten duten asoziazio (partenarietatea) harremanak finkatzen dituzte. Asoziazioa elkarrekiko erantzukizun, ardura eta berdintasunaren irizpideen arabera antolatzen da.

GGKEek badakite, sarritan, benetazko lankidetzan Iparraldeko hiritarren eta komunitate behartsuen artean lortzen dela, eta horrexegatik, hain zuzen, prozesu horren bitartekari eta laguntzaile dira.

GGKEak egitasmoen eragile zuzenak izan baino, bertako erakundeekin elkarlanean arituko dira, kasu oso zehatz eta argietan izan ezik, hala nola, erakundeok existitzen ez direnean, edo egitasmoen konplexutasun edo larritasunak hala eskatzen duenean.

Ekintza hauek beti joko dute herrialdeko gizartearen eraikuntzara eta inoiz ere ez hura hondatzera, beraz, beti adi egon beharko dira halako ondorioen aurrean.

GGKEa eta bere kontraparteen arteko harremana lankidetzaren esparrura mugatu behar da funtsean. Hauetan beraz, GGKEak onuradun izango den gizartetik sortutako ekimenetik abiatuko dira, horrela, garapena gizakiaren beharrezan neurritan eginez. Onura hartuko duten herrialdeak beraien gizarteetan bertan pobretutako, baztertutako edo marginatutako biztanle multzoak izan ohi dira.

Asoziazio erlazioa ez da soilik egitasmoen esparrura mugatuko, gogarpena eta osotasuneko azterketa ere aintzat hartuko dira. Bizipenen berri ematera, adostutako

estrategien finkapenera edota bai Hegoaldean bai Iparraldean sentsibilizazio eta salaketa kanpainak antolatzen ere joko du.

## 3.2.- GGKEen arteko harremanak

GGKEek bere helburuak lortzeko beste GGKEekin modu koordinatuan eta lankidetzara helburu lan egitera joko dute, isolatutako lana eta euren arteko norgehiagoka eta lanen bikoizketa ekidinez.

GGKEek ez dute beste erakundeen aurkako salaketarik ez eta kritikarik ere zuzenduko alde aurretik honen zergatiak eta kritikaturako erakundeak zeintzuk diren aipatu ezean. GGKEen eginbeharren koordinazioak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Helburuen, giza eta diru baliabideen eta partaide den erakunde bakoitzaren filosofiaren autonomia onartu behar du.
- Erakundeen arteko komunikazioa erraztu eta amankomuneko gai interesgarriak buruz berri eman behar du.
- Erakundeen arteko ekintza bateratuak erraztu behar du.
- Printzipioei, ekintzei, helburuei, planteamenduei eta abarrei buruzko talde azterketa eta eztabaida sustatu behar ditu lankidetzaren esparruan.
- Hegoaldeko herrialdeen lankidetzara eta garapenaren promozio eta babespenaren alde egin hirugarrenen aurrean (hala nola nazioarteko erakundeak, gobernuak, herrialdeak, bestelako federazioak eta erakundeak).
- Herrialde eta herrialdearteko iritzi publikoari, gizarte indarrei, indar politikoei, herrialdearteko erakundeei eta Administrazio Publikoei zuzendutako egintzak koordinatu beharko ditu.

Helburuok era egokian lortzeko GGKEek parte diren lankidetzara egitura guztietan eraginkorki parte hartzeko konpromezua hartu beharko dute.

## 3.3.- Iparraldeko gizarte eta agenteekiko harremanak



GGKEek herritargoaren partehartzaitzaren bitartekariak diren einean zera onartu beharrean daude:

- Bere lanak xedetzat duela askatasuna, zuzentasuna eta elkartasuna sustatzea, adierazpen-bide zehatz eta eraginkorrak bideratuz.
- Gizartea eragiteko benetazko indarra osatzen dutela.

Horregatik guztiagatik bere lanaren zati handi bat zera lortzera zuzendu beharko da:

- Hiritargoaren protagonismoa sendotu eta indartzera.
- Botere publikoekiko, sektore pribatuekiko eta bestelako gizarte agenteekiko harremana indartzera, haien politikan positiboki eragiteko helburuarekin. Hori guztia esparru estrategiko baten barruan eta jarraibide honetan zehazturiko printzipio etikoetan oinarrituta.
- Hiritargoa mobilizatzea Lurreko herrialde behartsuenak kaltetzen dituzten bidegabekerien aurrean aterabide berriak bilatu eta plazaratzeko, haiek salatu eta presioaren bidez eragiteko.
- Estrategikoki bat datozen bestelako erakunde eta gizarte mugimenduekin akordioak eta itunak bilatzea.

### **3.4.- Dohaintza-emaile pribatuekiko harremanak**

GGKEek ardura handia hartu beharko dute jasotzen dituzten diru-laguntzek beren askatasunean eraginik izan ez dezaten eta berezko zaizkien helburuen lorpenean eragozpenik sor ez dezaten.

Dohaintza-emaileen nahia errespetatuko da beti, diruen azken erabilerari dagokionean. Emaileek dohaintzari dagokion ziurtagiria eskuratzeko duten eskubidea bete beharko dute GGKEek.

Bazkide edota laguntzaileez zer ulertzen duten zehatz-mehatz zehaztu beharko dute dokumentu ofizialen berri ematen duten bakoitzean eta kontzeptu hauei dagozkien sailetan.

## 3.5.- Harremanak enpresekin

GKEEn eta enpresen arteko harremanak eraikitzeke oinarrian ideia hau egongo da: askotariko jarduerak partekatuz sinergiak sor daitezke, bi alderdientzako desiragarriak izan daitezkeen emaitzak lortzea ahalbidetzen dutenak.

Egia da enpresek jarduerak planteatzen dituztenean, zilegitasun osoz, onura ekonomikoak maximizatzea helburu izan ditzaketela; erakundeek, berriz, ezin dute helburu hori izan eta, ondorioz, enpresek eta erakundeek elkarrekin dizuten jarduerak ere ez dute onura ekonomikoa xede izango. Hori dela eta, ezinbestekoa da lankidetzaz-aurkerak aztertzea eta ezartzea, hala erakundeek nola enpresek bakoitzaren izaerarekin eta funtzioekin koherenteak diren ikuspuntuak eta ekintzak aurki ditzaten.

Oro har, proposatzen dugu enpresen eta erakundeen arteko lankidetzan besteak beste honako irizpide hauek oinarri hartzea: giza garapena, erantzukizun soziala, irabazi asmorik eza, elkar ezagutzea, gardentasuna, parte-hartzea eta iraunkortasuna.

## 3.6.- Harremanak hornitzaileekin

GGKEk, haien printzipio eta helburuei jarraikiz, gizarteren eraldaketa bultzatzen dute eta gure gizartean balio eta jokabide solidarioak hedatzen dituzte. Hori erdiesteko tresnetako bat GGKEk kontsumitzeko modua da; hori dela eta, ezinbestekoa da jarduera horretan irizpide etiko eta solidarioak txertatzea.

GGKEEn eta hornitzaileen arteko harremanetan erakundeek sustatzen dituzten balio solidarioekin eta hornitzaileen jokabide etikoarekin eta sozialarekin loturik dauden irizpideak egon behar dira.

Oro har, ezinbestekoa da erakundeen kontsumoa murriztea eta kontsumo kontziente eta arduratsua bultzatzea; bidezko merkataritzako produktuen kontsumoa sustatzea; lehenetsua ematea elkarlanerako ekintzak gauzatzen diren eskualdeko hornitzaileei eta produktuei, bai eta emakumeek gidatutako enpresei eta ekonomia solidarioaren arloko erakundeek ere. Horrez gain, ingurumen-iraunkortasuna sustatu behar da, finantzen arloko produktu eta tresna etikoak eta solidarioak erabili behar dira eta biztanleria zibilaren artean banku etikoak sustatu behar dira. Bestalde, merkataritza-harremanak eratu behar dira inguruarekiko

konpromisoa duten eta jokabideen kodeak, aukera-berdintasuna sustatzeko politikak, gizarte zein ingurumen erantzukizuna eta abar dituzten eta aplikatzen dituzten enprekin. Bukatzeko, uko egin behar zaie bereizkeriaz jokatzeko duten, giza eskubideak urratzen dituzten eta Hegoaldeko herriei bidezkoak ez diren merkataritza-harremanak sustatzen dituzten enpresei eta produktuei.

## **4.- GGKEen antolakuntza irizpide orokorrak**

### **4.1.- Gardentasuna eta kudeaketa**

GGKEak beti legea betez arituko dira.

GGKEen kudeaketak erantzukizunez eta zintzotasunez egingo beharko du izan, erakundearen helburuen lorpenera izango delarik beti azken xedea.

GGKEek, gizartearen zerbitzura dauden erakundeak diren elean, hala eskatzen duen guztiari beren egintzen, egitasmoen, helburuen, baliabide iturrien, baliabideen zenbatekoaren eta gobernu organoen osaketaren informazioa eman beharko diote aldi berean.

GGKEek, urtero, beren egintzei, egitasmoei, baliabideei eta gobernu organoetarako buruzko txostena emango dute argitara.

### **4.2.- Ekonomi baliabideak**

GGKEen diru-laguntzen lorpenerako iharduera guztia legearen esparruaren eta jarraibide honetan zehaztutako printzipio etikoen barruan egingo da, eta bereziki, 5. idazpuruan, *Komunikazio arauak, publikitate eta irudien erabilpena* delakoan esandakoari dagokionean.

Diru-laguntzak lortzeko ekimen guztiak zintzoak izan beharko dira, iruzurrak alde batera utziz, erakundearen izana modu egokian deskribatuz, erakundeak egokiro bideratuko dituen deialdiak luzatuz eta presiozko eta errua gaineratuzko taktiken erabilera baztertuz.



GGKEak behartuta egongo dira urtero egingo den txostenean diru-kontuen berri ematera, eta datu ekonomiko hauen berri bere bazkide eta laguntzaileei eta lanean diharduten kontraparteei ere emango die.

50 miloi pezetatik gorako diru-sarrerak izango dituzten GGKEek erakundetik kanpotikako kontu-ikustaritzak jasan beharko dituzte urtero eta eskatzen dituen edonoren eskutara egon beharko dira.

GGKEen gastu-banaketa publikoaren bistara egongo da eta administrazio gastuetara bideratutakoa bereziki zehaztuko da, bai eta aipatu gastuen kalkuluan erabilitako kontzeptuak ere.

## 4.3.- Giza baliabideak

Indarrean dagoen legaltasuna zehazki errespetatuko da GGKEen eta bere lana bertan egiten dutenen arteko harremana lan-motatakoa denean.

GGKEek beharrezko diren neurriak hartu beharko dituzte beraietan parte hartzeko arraza, sexua, jatorria edo erlijioa dela eta inolako baztertze edo bereizkeriarik gertatu ez dadin. Era berean, komenigarria da GGKEek eurek barneko politikak gara ditzaten erakundearen ari diren gutxiengoaren genero berdintasuna eta partehartzailletza benetan bermatua izan dadin.

GGKEek argiro zehaztu beharko dituzte bolondresekiko harremanak, baldintzak finkatzerakoan haren eskubideak errespetatuz.

Harremana GGKEen eta administrazioaren arduradunen artekoa denean, azken honen arauak errespetatuko dira eta honek pertsona horiei emaniko eskubideak ere bai.

Laguntzailearen betekizunak inolaz ere ezin izango dira laborari gisa ari den laborarien betekizunen berdina izan, aipatu betekizunak azken honek asetzeko modukoak badira behintzat.

GGKE bakoitzaren zerbitzupean ari den pertsonen kopuru osoari dagozkion datuak agerikoak izango dira (bai ordainduzkoak, bai ordainik gabekoak)



## **5.- Komunikazio arauak, publizitatea eta irudien erabiilpena**

GGKEek komunikazioa sentsibilizazio eta garapenaren hezkuntzarako tresna gisa erabiltzen dute, honako helburuekin:

- Garapenaren arazoan aurrean kontzientzia hartzea sustatu; pobreziaren zergatiak eta balizko aterabideak ezagutu eta ulertu; Lurreko herrialde guztien arteko elkarren menpekotasuna agerian jarri; elkarrenganako ezagutza baterako nahita nahiezko elkarrekikotasuna eta kultura ezberdinen arteko begirunea sustatu.
- Lankidetzaren egitasmoetan hiritargoaren partehartzaitza areagotzea, lankidetasun politika egokiak bultzatzeko beharrezko eztabaida publikoa sustatuz, Iparralde Hegoalderen arteko elkartasuna indartuz eta indarrean dauden botere egiturak aldarazteko borrokatuz.

Horretarako, GGKEek komunikatzeko orduan arau hauek errespetatu beharko dituzte:

- Hegoaldeko herrialdeetako errealitatearen ezagutza objektiboa jakiarazi.
- Komunikazioaren protagonista gisa Hegoaldeko biztanlegoa, egoera eta herrialdea jarri, eta ez GGKEa edota beronen partaideak.
- Pertsona eta herrialdeen duinasunarekiko begirune osoa izan.
- Beti GGKEen balore "erradikalak" azpimarratu, hala nola, zuzentasuna, elkartasuna, erantzunkizuna eta genero-berdintasuna.
- Komunikazioan pertsonen parte hartze aktiboa sustatu.
- Komunikazio lan guztietan beti zorrotza izan, komunikazio euskarri guztiak aintzat hartuz.
- Komunikabideetako profesionalekin batera lan egin.
- Artekarien Batzordeko *Irudien eta Mezuen Kodean* aditzera emaniko gomendiei jarraitu, eta bereziki honako hauei dagokienean:



-Mezuak edonolako bereizkeria ekidin beharko du (arrazazkoa, sexuzkoa, kulturazkoa, erlijiozkoa, sozioekonomikoa...).

-Mezu eta agerpen katastrofista, idiliko, orokortzaileak eta bereizgarriak ekidin beharko dira.

-Iparraldearen nagusitasuna edota Hegoaldeko biztanlegoa gure errukiaren objektu bezala eta ez lankidetzarako lan bateratuaren partaide bezala agertuko duten irudi edo mezuak ekidin.

-Mezuak Hegoaldeko erakundeekin adostu beharko dira beraien egoera benetan islatua izan dadin.

-Hegoaldeko protagonistei komunikabideetarako bidea erraztu.

-Hegoaldearen benetazko aldakuntza eragingo duten Iparraldeko jarreraren aldakuntza indibidual eta sozialerako mezuak sustatu.

## BIGARREN ATALA: EZARPENA, ZABALKUNTZA ETA JARRAIBIDEAREN BETETZEA

### **1.-** Jarraibidearen ezarpena

GGKEen Koordinakundearen partaide diren GGKEek formalki onartu egin beharko dute jarraibide hau, horretarako astia emango zaielarik. Onartu nahi ez dutenak Koordinakundetik kanpo geratuko dira. Azken hauek jarraibideari uko egitearen zergatiak aurkezteko aukera izango dute Gobernu Batzordearen aurrean, eta honek eskaera hau aintzat hartzeko eskubide osoa izango du, azkenik, Biltzarrak berrestua izan beharko delarik.

Ondoren, izena eman duten GGKEek, jarraibidearen edukinarekin bat egiteko behar diren barneko aldaketak (estatututan, organotan, metodoetan, aurrekontuetan eta abarretan) egin ditzaten epe bat irekiko da.

### **2.-** Jarraibidearen zabalkundea

Jarraibidea zabaltzearen helburuak honakoak dira:

- GGKEen kontzeptua, helburuak eta iharduera (praktikak) zehaztea.
- Gardentasun, barne-demokrazia eta doitasun printzipioak bermatzea GGKEen jardueran.
- GGKEek adostasunez onartutako jarraibideak espainiar gizarteari aditzera eman.

GGKEen jarraibidea honakook ezagutu beharko dute:

- Sinatzen duten erakundeek.
- Ezagutu nahi duten bazkide eta laguntzaileek (edozelakoak direlarik).
- Hegoaldeko kontraparteek.



- GGKEei laguntza eta babesa ematen dien administrazio publikoek eta hala nahi duten beste guztiek.
- Komunikabideek, enpresek eta orokorki GGKEekin lan egiten duen edozein motatako erakundeek.
- Iritzi publikoak orokorrean.
- Koordinakunde autonomikoak eta Lokalak

Jarraibidearen zabalkundearen ardura GGKEen Koordinakundearen eta izena emandako gainontzeko GGKEen gainean dago.

### **3.- Jarraibidearen betetzea**

Izena emandako GGKEen aldetik Jarraibidearen betetze egokia bermatzeko asmoz, beraren segimendu batzorde bat eratuko da.

Jarraibidearen segimendu batzordearen betebeharrak honakoak izango dira:

- Jarraibidearen zabalkunde eta ezagutza sustatzea.
- GGKEen aldetik haren aplikazioa sustatzea.
- Izena emandako GGKEek jarraibidea beteko dutela jagon.
- Jarraibidea interpretatu eta GGKEei laguntza eskeintzea hura betetzeko orduan.

Aipatu batzordea, GGKEen Koordinakundearen partaide dena, Biltzar Nagusiak hautatutako bost partaidez osatua egongo da: GGKEen Koordinakundearen lehendakaria, elkartutako GGKEen partaide bi eta GGKEetatik kanpoko lagun bi, azken hauek partaide diren gutxienez sei GGKEek aurkeztuak eta bermatuak izango dira, eta lankidetzaren munduan ondo ezagunak eta mirestuak. Koordinakundearen lehendakaria izan ezik, batzordearen gainontzeko partaideak gutxienez bildurikoen 2/3eko gehiengo batek hautatuak izan beharko dira.

Batzordeak bere kabuz, Koordinakundearen Gobernu Batzordeak edo bestelako erakunde batek jarraibidea bete ez dela eta informazio zehatza aurkezten duenean ekin ahal izango du.



Batzordeak GGKEei, bereziki aintzat hartuak izan beharko diren jarraibidearen berezitasunei buruzko gomendioak edo proposamenak luzatu ahal izango dizkie.

Erakunde jakin baten aurka ekiten duenean batzordeak zera egin beharko du lehenengo:

- Elkarrizketa sakon bati ekin GGKEak aurkeztutako zergatiak aintzat hartuz. Elkarrizketa horretatik abiatuta Batzordeak jarraibidea betetzeko behar diren gomendioak eskeiniko dizkio aipatu GGKE horri.
- Elkarrizketan zailtasunak agertzen direnean edo gomendioak behin eta berriz zokoratzen direnean batzordeak argitara eman ahal izango du federatutako GGKEen artean GGKE horri emandako gomendioak.
- Kasurik larrienean, hau da, batzordearekiko errespeturik eza gertatuz gero (batzordearekin elkarrizketatzeko deiei uko egitea, eskatutako informazioa azalpenik gabe ukatzea...) edo jarraibideari behin eta berriz eta zergatirik gabe uko eginez gero, batzordeak zigorrak (Koordinakundetik kanporatua izatearena barne) proposatu ahal izango dizkio Gobernu Batzordeari berak erabaki dezan. Zigorrak Biltzar Nagusiak berretsiak izan beharko dira (zigortutako GGKEak hala eskatuz gero).